



Araudia Betetzeko Politika Korporatiboaren Printzipio
Orokorrak

2025eko otsailaren 20a

Edukia

1. Sarrera	3
1.1 <i>Aurrekariak</i>	3
1.2 <i>Irismena</i>	3
1.3 <i>Helburua</i>	3
2. Aplikazio-eremua	5
3. Arau-esparrua. Araudi eta estandar aplikagarriak	6
4. Araudia Betetzeko Funtzioaren printzipio orokorrak	9
5. Araudia Betetzeko Funtzioaren kudeaketa-esparrua	11
5.1 Antolaketa-eredua	11
5.1.1 <i>Araudia betetzearen eginkizun korporatiboa</i>	11
5.1.2 <i>CaixaBank-en Araudia Betetzeko Funtzioa</i>	12
5.1.3 <i>Country Compliance funtzioa</i>	13
5.1.4 <i>Araudia Betetzeko Funtzioa Taldearen sozietateetan</i>	13
5.2 Kudeaketa-eredua	14
5.2.1 <i>Betetze-arriskuen taxonomia</i>	14
5.2.2 <i>Araudia Betetzeko Funtzioaren eskumen-eremua kontrol-ingurunean zedarritzea: hiru defentsa lerroko eredia</i>	14
5.3 Araudia Betetzeko Funtzioaren funtsezko elementuak	15
5.3.1 <i>Betetze Programa</i>	15
5.3.1.1 <i>Araudia betetzeko politikak</i>	15
5.3.1.2 <i>Arau- eta erregulazio-aldaketen inplementazioa eta jarraipena</i>	15
5.3.1.3 <i>Arriskuen eta adierazleen mapa</i>	15
5.3.1.4 <i>Aholkularitza</i>	16
5.3.1.5 <i>Betetze-arriskuaren aldizkako ebaluazioa</i>	16
5.3.1.6 <i>Monitorizazioa eta testatzea</i>	16
5.3.1.7 <i>Prestakuntza eta sentsibilizazioa</i>	16
5.3.1.8 <i>Komunikazioa eta Informazioa</i>	17
5.3.2 <i>Betetzearen Urteko Plana</i>	17
5.3.3 <i>Gabeziak identifikatzeko prozesua</i>	17

1. Sarrera

1.1 Aurrekariak

Hainbat mailatako lege-xedapen ugari eskatzen diete erakundeei Araudia Betetzeko Funtzioa (aurrerantzean, "Araudia Betetzea", "Betetzea" edo "Compliance") beteko duen berariazko funtzio bat izatea, enpresa-printzipio etikoak sustatzeaz, legea errespetatuko duen kultura korporatiboa berrestez eta horietan jasotako betebeharrak ez betetzeko arriskuarekin lotutako kontrolen eraginkortasuna aldizka egiaztatzeaz eta ebaluatzeaz arduratuko dena.

Jarduketa-esparru horren harira, CaixaBank, S.A.ren Administrazio Kontseiluak Araudia Betetzeko Politika Korporatibo hau (aurrerantzean, "Politika") onartu du.

1.2 Irismena

Horren harira, Erakundean funtsezkoa da araudia betetzeko eginkizun bat izatea eta aplikatu beharreko araudia eta estatu eta nazioarte mailako estandar gorenak betetzen dituen antolaketa-eta kudeaketa-eredu bat duela bermatzea.

Araudia betetzea antolakundea eratzen duten kide guztien nahiz bakoitzaren erantzukizuna da, hau da, CaixaBank-en langile, zuzendari zein gobernu-organismoetako kide guztiena.

Bereziki, **Araudia Betetzeko Funtzioari** dagokio Erakundean *Compliance* kudeaketa-sistema bat behar bezala ezartzen dela modu proaktiboan eta autonomoan zaintzea. Inplementazio egoki horri ekin ahal izateko, eginkizuna modu autonomoan eta independentean gauzatzen da, eta Erakundeak beharrezko agintaritza eta giza baliabideak nahiz baliabide teknikoak jarri ditu horretarako, Politika honen 4. atalean zehazten den bezala.

Araudia betetzea

1.3 Helburua

Politika honen helburua da arauak betetzeko funtzioa zehaztea. Eginkizun horren xedea da erakundeak bere jarduera-eremuaren esparruan eta legeak, araubideak, eskakizun judizialak edo administratiboak, jokabide-kodeak edo estandar etikoak eta jardunbide egokiak ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondorioz zehapenak jasotzeko edo finantza-galerak izateko dituen arriskuak (aurrerantzean, "**betetze-arriskuak**") identifikatzea, ebaluatzea, gainbegiratzea eta horien berri ematea; eta, halaber, goi-mailako zuzendaritzari eta gobernu-organismoari araudia betetzearen arloan aholkularitza, informazioa eta laguntza ematea, antolakunde osoan betetze-kultura sustatuz prestakuntza-, informazio- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez.

Horretarako, Araudia Betetzeko Funtzioa honako helburu hauen bidez egituratzen da:

- Erakundeak gauzatutako prozesu eta jardueretatik eratorritako **betetze-arriskua gainbegiratzea**.
- Erakundearen jarduketa gidatuko duten **balio korporatiboak eta Kode Etikoan jasotako printzipioak sustatzea eta bultzatzea**.
- **Indarrean dauden lege eta araudia (barne- zein kanpo-araudia) kontrolatu eta betetzeko kultura sustatzea**, zeinak hura erakunde osoaren kudeaketan integratzen ahalbidetu eta lagunduko baitu.

Horrekin batera, hona hemen eginkizunean erantzukizun maila handiena duten funtsezko figurak:

- Taldearen *Chief Compliance Officer*-a: Taldeko araudia betetzeko eginkizunaren arduradun nagusia da.
- *Country Compliance*-a (*Country Compliance Manager*-a): jurisdikzio bakoitzeko betetzearen arduradun nagusia da. Jurisdikzio bakoitzeko betetzean diren arriskuak zaindu, gainbegiratu eta koordinatzeko eginkizuna du.
- *Chief Compliance Officer*-a edo *Compliance zuzendaria*: Erakunde bakoitzaren (CaixaBank, filialak, sukurtsalak edo ordezkari-taldea -AEBren kasuan-) betetze-funtzioaren arduraduna da.
- *AML Manager*-a: kapital-zuriketa prebenitzeari buruzko betearazpen-arduradun nagusia da.
- *AML Officer*-a: zuriketa prebenitzearen arloan *AML Managerrak* berariaz eskuordetzen dizkion erantzukizunak betetzen ditu.

Politika honen edukiak, besteak beste, alderdi hauek jasotzen ditu:

- Araudia Betetzeko Funtzioaren printzipio orokorrak
- Gobernu-esparrua
- Araudia Betetzeko Funtzioaren kudeaketa-esparrua
- Kontrol-esparrua
- Informazio-esparrua

2. Aplikazio-eremua

Politika honek korporazio-izaera du. Ondorioz, zehazten diren jarduketa-printzipioak CaixaBank-i eta betetze-arriskuaren eraginpean den jarduera oro gauzaten duten Taldeko sozietate guztiei ("CaixaBank Taldea" edo "Taldea") aplikatuko zaizkie. Sozietate horietako gobernu-organismoek politika honetako xedapenak txertatzeko behar diren erabakiak hartuko dituzte, eta, proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, gobernu-organismoen, batzordeen eta sailen egituraren jiteria egokituko dute gobernu-esparrua, bai eta dokumentu honetan deskribatzen diren jarduera-printzipioetara, metodologietara eta prozesuetara ere.

Txertaketa horrek, beste erabaki batzuen artean, filialak bere politika propio bat onartzea ekar dezake. Onarpen hori beharrezkoa izango da Politika honetan xedatutakoa euren berezitasunetara egokitu behar duten Taldeko sozietateetan, dela gaiarengatik, jurisdikzioagatik edo filialean arriskuak duen garrantziagatik. Filialaren arriskua kontrolatzeko eta kudeatzeko jarduerak zuzenean CaixaBank-etik egiten direnean, dela filialaren arriskuaren materialtasunagatik, dela eraginkortasun-arrazoiengatik nahiz filialak arrisku horren kudeaketa operatiboa CaixaBank-en esternalizatu izan duelako, eragindako Taldeko sozietateen gobernu-organismoek Politika Korporatibo honen berri izango dute, eta Taldeko sozietate horiei ere aplikatuko zaizkiela jakingo dute. Taldeko sozietateen gobernu-organismoak Politika Korporatibo honetara atxikiko dira Politika Korporatiboaren jarduketa-printzipioak aplikagarriak izanik filialak ez duenean politika propio bat landu eta Politika Korporatiboaren edukia filialak zuzenean gauzatu beharreko printzipio, betebeharrak eta jarduerak batzuk ezartzen dituzten.

Nolanahi ere, Araudia Betetzeko Funtzioak, bere izaera korporatiboa dela eta, Politika hau sozietateetan era egokian txertatzen dela eta, Taldeko sozietateek beren politika propioak onartzen badituzte, horiek Politika Korporatiboarekin bat egiten dutela zainduko du; era berean, Politika hau CaixaBank Talde osoan finkatuta dagoela zainduko du.

Politika hau, korporatiboa izateaz gain, CaixaBank Taldearen matrize den CaixaBank erakundearen banakako politikatzat hartzen da.

Politika honen ondorioetarako, **Araudia Betetzearen Perimetroa** eratzten dute jarraian adierazten diren baldintzak betetzen dituzten CaixaBank Taldeko sozietateak:

- CaixaBank-en kudeaketa eraginkorra, hau da, CaixaBank-ek du partaidetza nagusia edo sozietatearen kontrola.
- Enpresa aktiboa da eta CaixaBank-en irauteko bokazioa¹ du.
- Sozietateak egitura bat du, hau da, langileak ditu.
- CaixaBank-en jarduerarekin lotutako jarduera bat garatzen du.

Perimetrotako enpresen barruan, era berean, honako hauek bereizten dira:

- **Araudia Betetzeko Funtzio propioa duten filialak:** Taldearen barruan duten kritikotasunagatik edo Espainiako eta Europako banku-erregulazioaren araudi gehigarriaren mende egotearen ondorioz berariazko errekerimenduak egoteagatik Araudia Betetzeko Funtzio propioa duten sozietateak.

¹Irauteko bokazioaren baldintzatzaileak ez du eraginik izango baldin eta, Perimetroan ez sartzea erabaki zuenetik bi urte igaro ondoren, sozietate batek CaixaBank Taldeko kide izaten jarraitzen badu.

- **Araudia Betetzeko Funtzio propiorik ez dutenak:** Araudia Betetzeko unitate propiorik ez duten sozietateak, banku-arauketaren araudi gehigarriaren mende ez daudelako edo garatutako jardueraren ondorioz betetze-arriskua txikiagoa delako.

Perimetroaren barruan diren sozietateek euren mende diren sozietateetan, hala badagokio, kudeaketa eta ikuskapen korporatiboaren ereduak ezartzen dela gainbegiratu eta koordinatu beharko dute.

Bestalde, **nazioartean** beste bi sozietate mota bereizten dira Perimetroaren barruan:

- **Nazioarteko sukurtsalak:** Espainiatik kanpo diren CaixaBank bulegoak, beren jarduera, funtsean, finantziazioan, berme-ematean eta oinarritzko banku-zerbitzuetan oinarritzen dutenak. Arau orokor gisa, sukurtsalek Araudia Betetzeko Funtzio propioa dute, tokiko legeriaren eskakizunetan oinarrituta.
- **Ordezkaritza-bulegoak:** Espainiatik kanpo diren CaixaBank bulegoak, beren jarduera nagusia atzerrian jarduten duten Espainiako enprekin eta Espainian jarduten duten atzerriko enprekin lotura- eta laguntza-funtzioak izatea denean. Arau orokor gisa, ez dute Araudia Betetzeko unitate propiorik, garatutako jardueraren ondorioz euren betetze-arriskua txikiagoa delako. Aurrekoari kalterik egin gabe, Compliance Officer propioa izendatuko da erregulazioak hala ezartzen duen jurisdikzioetan.

Bestalde, arrisku horietako bakoitzeko talde espezialistek zehazten dituzte Compliance taxonomietan (KZPTF, Penala, etab.) sartzen diren Taldeko sozietateak.

3. Arau-esparrua. Araudi eta estandar aplikagarriak

Politika hau indarrean dagoen araudi aplikagarrian aurreikusitakoaren eta etorkizunean hura aldatzen edo ordeztzen duenaren arabera arautuko da. Zehazki, hau da hori egin denean Araudia Betetzearen Eginkizunari aplikatu dakiokeen eta indarrean den araudia:

- AEB - US *Foreign Corrupt Practices Act* (FCPA), 1977.
- 35/2003 Legea, azaroaren 4koa, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzkoa.
- 6/2009 Zirkularra, abenduaren 9koa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena, inbertsio kolektiboko erakundeen eta inbertsio-sozietateen sozietate kudeatzaileen barne-kontrolari buruzkoa.
- 5/2010 Lege Organikoa, ekainaren 22koa, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena, eta ondorengo aldaketak (2010).
- UK Bribery Act (2010).
- 1082/2012 Errege Dekretua, uztailaren 13koa, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
- 2013-36-EB (CRD IV) Zuzentaraua, kreditu-erakundeen jardueraren sarbideari eta kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko gainbegiratzeari buruzkoa, 2002/87/EE Zuzentaraua aldatzen duena eta 2006/48/EE eta 2006/49/EE zuzentarauak indargabetzen dituena.
- Espainiako Erresumaren eta Amerikako Estatu Batuen artean nazioarteko betetze fiskala hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act - FATCA ezartzeko Madrilen 2013ko maiatzaren 14an onartutako Akordioa.
- BMBNren otsailaren 26ko 1/2014 Zirkularra, barne-antolakuntzako eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten erakundeen kontrol-funtzioen betekizunei buruzkoa.
- MIFID II/65/EB Zuzentaraua, 2014ko maiatzaren 15ekoa, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa, 2002/92/EE eta 2011/61/EB zuzentarauak aldatzen dituena.

- 10/2014 Legea, ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa (AIKL).
- 85/2015 Errege Dekretua, otsailaren 13koa, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legea aldatzen duena.
- Batzordearen 2017/565 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2016ko apirilaren 25ekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/65/EB Zuzentaraua osatzen duena inbertsio-zerbitzuen enpresen antolamendu-betekizunei, funtzionamendu-baldintzei eta zuzentarau horren ondorioetarako definitutako terminoei dagokienez.
- Europar Batasuneko Zuzenbidearen urraketei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko Zuzentaraua (2019).
- 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-urraketei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1624 (EB) Erregelamendua, 2024ko maiatzaren 31koa, kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko finantza sistemaren erabilera prebenitzeari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1640 (EB) Zuzentaraua, 2024ko maiatzaren 31koa, finantza-sistema kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko erabiltzea prebenitzeko estatu kideek ezarri behar dituzten mekanismoei buruzkoa, 2019/1937 (EB) Zuzentaraua aldatzen duena eta 2015/849 (EB) Zuzentaraua aldatzen eta indargabetzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1654 (EB) Zuzentaraua, 2024ko maiatzaren 31koa, 2019/1153 (EB) Zuzentaraua aldatzen duena, agintari eskudunek banku kontuen erregistro zentralizatueta interkonexio sistemaren bidez sartzeari eta eragiketen erregistroen erabilera errazteko neurri teknikoiei dagokienez.

Era berean, ikuskatzaileen, arautzaileen eta agintarien jarraibide eta irizpideak aplikatu behar dira, hala nola:

- EBA jarraibideak ordainketa-politika egokiei buruz, 2013/36/EB Zuzentarauaren 74. artikulua 3. atalari eta 75. artikulua 2. atalari jarraituz, eta informazioa zabaltzeari buruz, 575/2013 (EB) Erregelamenduaren 450. artikuluari jarraituz (EBA/GL/2015/22).
- Pertsona juridikoaren erantzukizun penalari buruzko Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2016 Zirkularra, 1/2015 (2016) Lege Organikoak egindako Kode Penalaren erreformaren araberakoa.
- EBaren 2018ko martxoaren 21eko Gida, barne-gobernuari buruz, EBA/GL/2017/11 (2017), Espainiako Bankuak 2018ko maiatzaren 18an bere egin eta 2021eko uztailaren 2an eguneratua (EBA/GL/2021/05), 2021eko abenduaren 31tik aurrera indarrean jarria dena.
- Betetzearen kudeaketari buruzko eta KZP/TF betetzeko arduradunaren zereginari eta erantzukizunei buruzko politikei eta prozedurei buruzko jarraibideak, 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (2022) 8. artikulua eta VI. kapituluaren arabera.
- Qualified Intermediary Agreement-Revenue Procedure 2022-43.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1620 (EB) Erregelamendua, 2024ko maiatzaren 31koa, Kapital Zuriketaren eta Terrorismoaren Finantzaketaren aurka Borrokatzeko Agintaritzak sortzen duena eta 1093/2021(EB), 1094/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) erregelamenduak aldatzen dituena.

Politika honek, azkenik, arloko nazioko eta nazioarteko beste estandar batzuk ere kontuan hartzen ditu, hala nola:

- “*Enterprise Risk Management - Integrated Framework*” (COSO I, 1992).
- ELGaren Eroskeriaren/Ustelkeriaren aurkako Hitzarmena (1997), nazioarteko transakzio ekonomikoetan atzerriko agente publikoen ustelkeriari aurre egiteko.
- ELGaren Gobernu Korporatiboaren Printzipioak (1999).

- NBEren Ustelkeriaren aurkako Hitzarmena (2003).
- Eroskeriari aurre egiteko enpresa-printzipioak. Nazioarteko gardentasuna (2003).
- "Compliance and the Compliance function in Banks" (Basileako Bankuko Gainbegiratze Batzordea, 2005).
- "Enterprise Risk Management - Integrated Framework" (COSO II, 2004).
- Guidance to the US FCPA (2012) Baliabideen eta informazio-bilketaren gida.
- Bankuetarako Gobernu Korporatiboaren Printzipioak (Basileako Bankuko Gainbegiratze Batzordea, 2015).
- ELGaren eta G20ren Gobernu Korporatiboaren Printzipioak (2016).
- Eroskeriaren aurkako kudeaketa-sistemen ISO 37001 Araua (2016).
- EBaren "ON THE APPLICATION OF THE GUIDELINES ON THE REMUNERATION OF SALES STAFF" izeneko azken txostena, entitateek bezeroen babesean eboluzionatzen jarrai dezaten. EBAk 17 jardunbide egoki identifikatzen ditu, erakundeek 2016ko EBA jarraibideen aplikazio praktikoan bete beharrekoak direnak.
- Compliance penalaren kudeaketa-sistemei buruzko 19601 UNE Araua (2017).
- "COSO Enterprise Risk Management – Integrating with Strategy and Performance" gida (COSO III ERM, 2017).
- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) gida, lehiaren defentsari buruzko compliance programena.
- Complianceren kudeaketa-sistemen ISO 37301 Araua (2021).
- MiFID II - ESMA35-36-1952 arauaren betetze funtzioari (Compliance) buruzko azken jarraibideak (2021).
- ESMAk "Ordainsari-politika eta -praktikei buruzko jarraibideak" gaiari buruz 2022an emandako azken txostena, iaz planteatutako kontsulta publikoari emandako erantzunak jasotzen eta gidalerroak eguneratzen dituen produktuak eta zerbitzuak merkaturatzean interes-gatazkak edo praxi txarrak sor ditzaketen erakundeetako langileen jokabideen aurrean bezeroaren babesa hobetzeko.
- ESMA 35-43-3565 jarraibideak, MiFID II-ren ordainketa-betekizunen alderdi jakin batzuei buruz.

Taldeko sozietateen kasuan, edo, hala badagokio, atzerriko jurisdikzioen edo araudi sektorial osagarriaren mende dauden sukurtsalen kasuan, Taldeko sozietate horiek edo sukurtsalek garatzen dituzten politika eta prozedurek kontuan hartuko dituzte, beren araudi propioaz gain, lehen aipatutako araudian maila finkatuan jasotako betebeharrak, dagokion jurisdikzioaren edo araudi sektorialaren betekizun espezifikoekin kontraesanean ez dauden bitartean.

Bukatzeko, Taldeko sozietate bakoitzean, edo hala badagokie, sukurtsaletan Politika hau ezarri, exekutatu eta betetzeko beharrezko arauak, argibideak edo prozedurak garatuko dira.

4. Araudia Betetzeko Funtzioaren printzipio orokorrak

Printzipio hauek arautuko dute CaixaBank Taldeak betetze-arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko duen jarduketa:

a) Autonomia

Araudia Betetzeko Funtzioa eginkizun autonomoa da, eta horrek esan nahi du bere funtzioak betetzeko behar besteko ekimena izan behar duela, beste arlo batzuetako jarraibide zehatzak jaso beharrik gabe edo haiek eskatuta jardun beharrik gabe.

Eginkizunak erabakiak hartzeko autonomia izan behar du, erakundearen beste arlo edo funtzio batek bere iritzia onartu edo berretsi beharrik gabe.

b) Independentzia

Bere erabakien objektibotasuna bermatu ahal izateko, Araudia Betetzeko Funtzioak independentzia funtzionalaren printzipioaren pean jardungo du betetze-arriskua gainbegiratzen eta monitorizatzen duen arlo edo funtzioen gainean.

Era berean, bere independentzia bermatze aldera, Araudia Betetzeko Funtzioa ez dago merkataritza-helburuak betetzearen mende, eta dagokion jardueraren helburuen eta Erakundearen erronka korporatibo globalen mende baino ez dago.

Halaber, izendapena, kargu-uztea, ordainsaria finkatzea (finkoa zein aldakorra, eta bien arteko proportzioa, betiere arrazoizkotasun-printzipioa errespetatuz) eta helburuen edo erronken betetze-maila ebaluatzea kasuan kasuko gobernu-organoen ardura izango da, aplikatu beharreko lege-eskakizunak bete ondoren.

Araudia Betetzeko Funtzioa betetzen duten pertsonak ezin izango dute parte hartu kontrolatzen dituzten zerbitzu eta jardueretan, beren funtzioetan eragin bidegabea saihesteko.

Araudia Betetzeko Funtzioak, nolana ere, zuzendaritza eta gobernu-organoetarako sarbide zuzena izango du beren funtzioak eta erantzukizunak garatzean.

c) Agintea

Araudia Betetzeko Funtzioa erakundearen hierarkia-maila gorenen barruan egongo da uneoro (goi-zuzendaritza eta funtsezko beste kargu batzuk, Gobernuaren Korporazio eta Barne Kontroleko Politikan zehazten denari jarraituz), eta behar besteko agintea izango du Erakundearen beste arlo batzuek bere gain har ditzaten haren jarduera-ildoak eta erabakiak.

Noiznahi kontsultak egin, informazio eskatu, ebaluazio-prozesuak eta/edo Erakundea arriskuan jar dezaketen ez-betetzeen arrisku erreal edo potentzialak aurkezten dituzten arlo edo prozesuen egiaztapen edo ikerketak abiarazi edo eskatu ahal izango ditu.

d) Giza baliabideak eta baliabide teknikoak

Betetze Funtzioaren misioaren eta erakundearen barruan dituen erantzukizunen garrantzia dela eta, Betetze Funtzioa betetzen duten arloek behar adina baliabide izan behar dituzte politika honetan esleitzen zaizkien jarduerak eta erantzukizunak gauzatzeko.

Horrela, behar adina baliabide material, informatiko eta tekniko esleitu behar dira Araudia Betetzeak bere funtzioa eraginkortasunez bete ahal izateko, eragiketen izaera, bolumena eta konplexutasuna eta Erakundeak bere gain hartutako arriskuen izaera kontuan hartuta.

Horretarako, bere jarduerak garatzeko aukera emango dion aurrekontu bat izan beharko du, eta aurrekontu horrek bat etorri beharko du Erakundeak duen ez-betetze arriskuaren mailarekin.

e) Gaitasuna eta ohorea

Betetze Funtzioan lan egiten duten pertsona guztiek beharrezko ezagutzak, esperientzia, kualifikazioa eta ohoragarritasun profesionaleko betekizunak izan beharko dituzte, Erakunde osoan beren eginkizunak bermeeekin betetzeko eta, horrela, Betetze Funtzioa modu iraunkorren beteko dela bermatzeko.

Horretarako, prestakuntza- eta ziurtapen-programak ezarri beharko dira Betetze Funtzioan sartzeko eta jarduteko, baita garapen profesionala ahalbidetzen duten planak ere.

f) Informaziorako sarbidea

Betetze Funtzioak sarbidea izango du bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezko informaziora eta dokumentaziora; halaber, erakunde ikuskatzaileen informazio-eskakizunei ezarritako epeen barruan erantzuteko beharrezko laguntza izango du maila guztietan.

g) Arriskuan oinarritutako ikuspegia

Beren jarduera gauzatzean, arauen betetzeari lotuta diren arlo guztiek, eta, bereziki, Betetze Funtzioak, une oro kontuan izan behar dute arriskuan oinarritutako ikuspegia, eta, beraz, prozesu nagusiei lotutako betetze-arriskuaren etengabeko balorazioa egin behar dute, Funtzioari dagozkion gainbegiratze- eta monitorizazio-jarduerak lehenesteko, baita baliabideak identifikatutako arriskuen arabera egoki esleitzeko ere.

h) Iraunkortasuna

Indarrean dagoen araudiak agintzen dizkion misioa eta zereginak betetzeko, Betetze Funtzioak une oro egon behar du Erakundearen antolamendu-egituran, erakundearen egitura osatzen duten pertsona zehatzak edozein direla ere.

5. Araudia Betetzeko Funtzioaren kudeaketa-esparrua

5.1 Antolaketa-eredua

5.1.1. Araudia betetzearen eginkizun korporatiboa

Araudia betetzeko eginkizun korporatiboa CaixaBank-en Arrisku Batzordeko Lehendakartzaren mende egongo da funtzionalki, eta Betetze eta Kontrol Zuzendaritzaren eta Public Affairs-en mende hierarkikoki. Mendekotasun funtzional horrek esan nahi du CaixaBank-en Arrisku Batzordeak parte hartzen duela korporazioaren edo bere Taldeko titular denaren, hots, *Chief Compliance Officer*en izendapenean eta kargugabetzean, bai eta horren helburuak finkatzen, jarduera ebaluatzen eta ordainsari finko eta aldakorra ezartzen ere.²

Taldeko *Chief Compliance Officer* da korporazioaren Araudia Betetzeko Funtzioaren arduradun nagusia, eta CaixaBank-en *Chief Compliance Officer* edo Compliance zuzendaria da izan ohi da. Korporazioaren *Chief Compliance Officer*ak politika honen 4. atalean deskribatutako printzipio orokorren arabera garatzen ditu bere eginkizunak, eta, bereziki, modu independente eta autonomoan jarduten du Erakundearen gainerako organoekiko; beraz, ezin du inolako jarraibiderik jaso bere eginkizunetan, eta horiek gauzatzeko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak ditu.

a) *Izendapena*

Erakundearen Administrazio Kontseiluaren ardura da korporazioaren *Chief Compliance Officer* izendatzea. Izendapena honela egin behar da:

- Europako Banku Zentralaren egokitasun-ebaluaziorako gidan ezarritakoa betez.
- Dituen ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia bere kargua betetzeko egokiak direla kontuan hartuta.

Korporazioaren *Chief Compliance Officer*aren izendapena eta kargugabetzea dagokien agintariei jakinaraziko zaie.

b) *Funtzioak*

Korporazioaren *Chief Compliance Officer*ak Perimetroko sozietateen araudia betetzeko unitateekiko harremanak koordinatzeko esparru bat ezarriko du, aldi-aldi araudia betetzeko funtzioa eta Reporting fluxuak koordinatze aldera. Ildo horretan, esparruak koordinazio-mekanismo egokiak zehaztuko ditu, jarraian deskribatzen diren funtzio korporatiboaren eskumenetan oinarrituta:

- Betetze-arriskuak behar bezala kudeatzen direla eta Taldean betetze-kultura ezartzen dela bermatzeko jarraibide orokorrak ezartzea, Taldeko sozietateen ardura duten arloekin koordinatuta, eta aplikatu beharreko araudi sektorialean Taldeari buruz agintzen zaizkion beste gai batzuk ezartzea (adibidez, kapital-zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko esparruan).

² Arrisku Batzordeak aholkatzen du Izendapenen eta Iraunkortasunaren Batzordea izendapenari eta kargugabetzeari dagokienez, eta Ordainsarien Batzordea ordainsariei dagokienez.

- Perimetroko sozietateen betetze-planaren definizioa gainbegiratzea, dagokien gobernu-organoek onartu aurretik, eta jarduera berriak sartzeko eskatu ahal izango da, planak betetze-arrisku guztien ikuskapena jaso dezan.
- Talde mailako irismena duten kide anitzeko organoak sortzeko proposamena zenbait esparrutan (adibidez, Taldearen barne-kontrolako organoa kapital-zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko esparruan).
- Taldeko sozietateen *Chief Compliance Officer*en izendapen-, kargugabetze-, finkatze- eta balidatze-prozesuetan parte hartzea, horien jarduera ebaluatzea eta horien ordainsari finkoa zein aldakorra zehaztea.
- Taldeko sozietateetan araudia betetzeko kudeaketan parte hartzen duten langileek gaitasun eta esperientzia egokiak dituztela eta funtzioaren egitura egokia dela zaintzea Taldeko sozietate bakoitzak garatzen dituen jardueren izaeraren, eskalaren eta konplexutasunaren arabera betetzen diren arriskuak kudeatzeko.

5.1.2 CaixaBank-en Araudia Betetzeko Funtzioa

CaixaBank-en *Chief Compliance Officer*a edo Compliance zuzendaria da CaixaBank-en Araudia Betetzeko Funtzioaren arduradun nagusia, eta berak betetzen du Taldearen *Chief Compliance Officer*aren eginkizuna ere.

Kargu hori bateragarria da beste erantzukizun batzuen izendapenarekin. Hala, CaixaBank-en *Chief Compliance Officer*a Taldeko Barne Informazio Sistemaren arduradun, *Officer FATCA*, *AML Officer*a izendatu du Administrazio Kontseiluak, bere eginkizun propioak eta *AML Manager*ak eskuordetzen dizkionak betez, beste batzuen artean. Izendapen horietako bakoitzetik eratorritako funtzioak arrisku horietako bakoitza kudeatzen duten politiketan deskribatzen dira.

a) *Izendapena eta ordainsaria*

5.1.1 atalean Taldeko *Chief Compliance Officer*a izendatzeko ezartzen diren irizpide berak aplikatu daitezke CaixaBank-en *Chief Compliance Officer*ari.

CaixaBank-en *Chief Compliance Officer*aren eta Araudia Betetzeko Funtzioko langileen ordainsariak ezin izango dira lotuta egon zaintza-erantzukizuna duten gaineko arloen irabazari. Aurrekoari kalterik egin gabe, ordainsariaren zati bat Erakundearen helburu orokorrak lortzeko lotutako ordainsari aldakor batek osatu ahal izango du, eta helburu horiek arriskuen kudeaketa egoki eta eraginkorarekin bateragarriak izango dira beti.

b) *Funtzioak*

CaixaBank-en *Chief Compliance Officer*a arduratzen da CaixaBank-en araudia betetzeko funtzioa kudeatzeko eredia behar bezala garatzeaz eta aurrekontua garatzeko beharrezkoak diren ekintzak gauzatzeaz, Betetzeko Funtzioak esleituta dituen zereginak bete ditzan. Erantzukizun nagusi hauek ditu:

- “Araudia Betetzeko araudi-esparruaren Inbentarioa” izeneko agiria onartu eta eguneratzea. Bertan, betetze-arriskuei buruzko prozeduren, politiken eta barne-araudiaren zerrenda jasotzen da.
- Araudia Betetzeko Politika korporatiboa behar bezala eta eraginkortasunez ezarriko dela bermatuko duen betetze-programa bat zehaztu, inplementatu eta mantentzea.
- Betetze-arriskuak etengabe identifikatu, monitorizatu eta ebaluatzea.

- Erakundearen gobernu-organoei eta goi-zuzendaritzari Araudia Betetzearen alderdi garrantzitsuenak eta hautemandako/sortutako ahuleziak konpontzeko ekintza-planak jakinarazten zaizkiela ziurtatzea.
- CaixaBank-en eta Taldeko sozietateen goi-zuzendaritzari eta gainerako langileei laguntza eta aholkularitza ematea betetze-arriskuak behar bezala kudeatzeko.
- Erakunde langileentzat araudia betetzearen esparruan prestakuntza-planak sustatu, koordinatu, monitorizatu eta, hala badagokio, gauzatea.
- Erregulatuak eta ikuskatzaile nagusiekin etengabeko harremana izatea, haien espektatibak ezagutzeko eta komunikazio erraza mantentzen laguntzeko (elkarrekiko lankidetzan oinarritutako harremana), CaixaBank-en ekimen eta proiektu arautzaile nagusien berri izanez beti.
- CaixaBank-en Kode Etikoan jasotako balioak eta printzipioak hedatzeko prozesua gidatzea, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren ardura duten arloekin batera.
- Araudia Betetzeko Funtzioak urtean zehar egin beharreko funtsezko jarduerak planifikatzea, arriskuan oinarritutako ikuspegiarekin, eta horien jarraipena egitea. Plangintza hori Betetzearen Urteko Planean islatzen da eta Administrazio Kontseiluak onartzeko aurkezten da.
- Arauak betetzeko kultura sustatzea Erakundearen barruan, gobernu-esparru egoki bat ezartzea eta mantentzea bultzatuz, erakunde osoan zehar jokabide-erregulazioak, -politikak, -prozedurak eta -estandarrak betetzea errazteko.

5.1.3. Country Compliance funtzioa

Taldeko negozio bat baino gehiago edo gainbegiraturako erakunde bat baino gehiago aritzen diren jurisdikzioetan betetze-arriskuen kudeaketa egokia ziurtatzeko, *Chief Compliance Officer* korporatiboak Taldeko sozietatearen *Chief Compliance Officer* izendatuko du jurisdikzioko negozio edo erakunde nagusiaren Country Complianceren (*Country Compliance Manager*) eginkizunaren arduradun. *Country Compliance Manager*ak beteko du aipatu jurisdikzioan era agregatuan diren arriskuak zaindu, gainbegiratu eta koordinatzeko eginkizuna.

Eginkizun horrek ez du ekarriko Politika honetan zehazten direnez bestelako mendekotasun hierarkiko edo funtzionalik.

5.1.4. Araudia Betetzeko Funtzioa Taldearen sozietateetan

Taldeko sozietateetan araudia betetzeko eginkizunean diharduten pertsonen jarraian deskribatzen den baterako mendekotasunaren antolaketa- eta gobernu-ereduari jarraituko diote:

- **Araudia Betetzeko Funtzio propioa duten filialak, sukurtsalak eta ordezkari-bulegoak:** Erakunde horietako bakoitzaren funtzioaren arduradunak edo *Compliance Officer*ak mendekotasun bikoitza izango du: batetik, hierarkikoa, kontseilari ordezkariarena, zuzendari nagusiarena edo baliokidea, edo zuzenean gobernu-organoarena; eta, bestetik, funtzionala, *Chief Compliance Officer* korporatiboarena. Nolanahi ere, izendapenari, kargugabetzeari, ordainsaria finkatzeari (finkoa zein aldakorra, eta bien arteko proportzioa, betiere arrazoizkotasun-printzipioa errespetatuz) eta helburuen edo erronken betetze-mailaren ebaluazioari eragiten dieten erabakiak, aplikatu beharreko lege-eskakizunak bete ondoren, dagokion goragoko hierarkikoari egokituko zaizkio, *Chief Compliance Officer*arekin batera. Gobernu-organoari jarduketa horiei eragiten dien edozein erabakiren berri emango zaio.

Taldeko sozietateen *Compliance Officer*ei esleitutako eginkizunak, bai eta horien ordainsaria eta izendapena ere, Politika honetako 5.1.2 atalean CaixaBank-en *Chief Compliance*

Officerentzat xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, bai eta, hala badagokio, AML Manager gisa beste kargu batzuk izendatzearen ondoriozko funtzioak ere.

Araudia betetzea

- **Araudia Betetzeko Funtziora langilerik zuzentzen ez duten filialak eta ordezkari-tzabulegoak:** Eginkizuna CaixaBank-en Araudia Betetzeko Funtzioak beteko du. Sozietate filialak, sukurtsalak edo ordezkari-tzabulegoak goi-zuzendaritzako pertsona bat izendatuko du euren eta CaixaBank-en arteko solaskidea izan dadin.

5.2 Kudeaketa-eredua

Araudia betetzeko eginkizuna kudeatzeko eredua funtsezko bi oinarriren gainean eraikitzen da:

- a) Betetze-arriskuen taxonomia.
- b) Araudia Betetzeko Funtzioaren eskumen-eremua kontrol-ingurunean zedarritzea: hiru defentsa lerroko eredua.

5.2.1 Betetze-arriskuen taxonomia

Betetze-arriskuen taxonomia da Taldea, CaixaBank Taldearen arriskuen katalogo korporatiboa kontuan hartuta, eraginpean dagoen jokabide- eta betetze-arriskua eta lege- eta araudi-arriskua kategorien arabera banatzen duen sailkapen bat.

Betetze-arriskua hainbat kategoriatan banatzeak aukera ematen du Araudia Betetzeko Funtzioaren jarduketa-eremua errazago zedarritzeko, eta arrisku horiek etengabe ebaluatzeko ariketa baten abiapuntua da.

Era berean, oinarri gisa balio du Araudia Betetzeko Funtzioa urtean zehar (Betetzearen Urteko Plana) zuzendu behar den jarduerak identifikatzeko eta lehenesteko, betetze arloan diren ahulezia eta gabezien zerrenda eguneratzeko eta Araudia Betetzeko Zuzendaritzak ekimenak eta proiektuak gauzatzeko.

CaixaBank-en gobernu eta barne kontrolerako politika korporatiboaren arabera, Araudia Betetzeko Funtzioak honako arrisku hauek ikuskatzeko ardura du, Arriskuen Katalogo Korporatiboan jasotzen direnen artetik:

- Jokabide- eta betetze-arriskua.
- Lege- eta arau-arriskua.

Ikuskatzeko arriskuak aldatu egin litezke legeak hala eskatzen duelako edo berariazko ikuskapen-irizpidea dagoelako, Politika honen 2. atalean aurreikusten den bezala. Arriskuaren Batzorde Globalak urtero berrikusiko ditu betetze-arriskuen taxonomia hori osatzen duten azpikategoriak.

5.2.2. Araudia Betetzeko Funtzioaren eskumen-eremua kontrol-ingurunean zedarritzea: hiru defentsa lerroko eredua

Taldearen barne-kontrolerako esparruaren barruan, eta barne-gobernuko eta barne-kontrolerako politika korporatiboan jasotako jarraibideen ildotik, Araudia Betetzeko Funtzioak hiru defentsa-

lerroren egiturari jarraituz gainbegiratu eta kudeatzen du jokabide- eta betetze-arriskua, bai eta arrisku korporatiboaren taxonomian identifikatutako lege- eta araudi-arriskua ere, eta horietan zedarritzen dira lerro horietako bakoitzaren funtzioak eta erantzukizunak.

Araudia Betetzeko Funtzioa, barne-kontrolako eginkizun gisa bigarren defentsa-lerroa osatzen duen aldetik eta gobernu eta barne-kontrolaren politika korporatiboarekin bat etorritik, jokabide- eta betetze-arriskuaren eta lege- eta erregulazio-arriskuaren identifikazioa, neurketa, definizioa eta jarraipena egiteaz arduratzen da, eta lehen defentsa-lerroak politikak eta prozedurak aplikatzen dituenaz modu independentean berrikusteko ardura du. Betetze-funtzioak negozio-unitateetatik berezita jarduten du, betetze-arriskua kudeatzeko eta kontrolatzeko politikak daudela ziurtatuz horrela, horien aplikazioa monitorizatuz, kontrol-ingurunea ebaluatuz eta arrisku material guztien berri emanez.

5.3 Araudia Betetzeko Funtzioaren funtsezko elementuak

Araudia Betetzeko Funtzioak funtsezko elementu hauez baliatzen da betetze-arriskua behar bezala estaltzen dela ziurtatzeko:

- Betetze Programa.
- Betetzearen Urteko Plana.
- Ahuleziak identifikatzeko prozesua.

5.3.1 Betetze Programa

Betetze Programa da nazioartean normalean onartutako metodologia bati jarraituz betetze-funtzioaren jardura nagusiak arrazionalizatu eta sistematizatzen dituzten prozesu eta jardueren multzoa.

Betetze Programaren aplikazioa giltzarri diren jardura multzo baten egikaritzean oinarritzen da, hala nola:

5.3.1.1 Araudia betetzeko politikak

CaixaBank-en Betetze Programaren funtsezko elementua da Araudia Betetzearen arloan politikak sortu eta mantentzea, zeinak argi zehazten baitituzte Erakundeak betetze-arriskuari dagokionez jarraitu behar dituen jarduketa-errekerimendu eta -irizpideak.

5.3.1.2. Arau- eta erregulazio-aldaketen inplementazioa eta jarraipena

Betetze-arriskuen eremuan eragina duten araudiak inplementatzean datza, edo horien jarraipena egitean, inplementazio hori eragindako beste arlo batzuei dagokienean.

5.3.1.3 Arriskuen eta adierazleen mapa

Betetze-arriskuen taxonomiarekin lotuta dauden CaixaBank-en jarduran eragina duten funtsezko erregulazioen inbentarioa sortu eta mantentzea dakar, eta baita arrisku horiek

monitorizatu, detektatu eta gutxitzeko aukera emango duten adierazleak identifikatzea, inplementatzea eta horien jarraipena egitea ere.

5.3.1.4 Aholkularitza

Arestian azaldu bezala, Betetze Funtzioak Gobernu Organoari, Goi-zuzendaritzari eta gainerako antolakundeari Araudia Betetzearen misioarekin erlazionatutako alderdi garrantzitsu guztiei dagokienez aholkularitza emateko funtsezko lana du. Funtzio hori gauzatzean, Betetze Funtzioak, hala badagokio Erakundearen espezializatuta diren beste arlo batzuen laguntza izango du, gaiaren arabera.

5.3.1.5 Betetze-arriskuaren aldizkako ebaluazioa

Erakundearen Betetze Programaren barruko elementu gakoetako bat da betetze-arriskuaren aldizkako ebaluazioa egitea, zeina Betetze Funtzioak garatu beharreko jarduerak lehenesteko tresna izango baita, baita horien kritikotasuna eta baliabide-esleipena finkatzeko ere.

Betetze-arriskuaren ebaluazioan kontuan hartu beharko da jarduerari atxikitako arriskua, kontrol-ingurunea gainbegiratzearen emaitzarekin batera, eta baita barne- eta kanpo-auditoretzen eta erakunde gainbegiratzaileen ondorio garrantzitsuak eta Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren jarduera edo horretarako gaitu diren kanaletan aurkeztu diren kontsultak eta/edo komunikazioak ere, zeinaren kudeaketa Betetze Funtzioari baitagokio.

5.3.1.6 Monitorizazioa eta testatzea

Araudia Betetzeko Funtzioak monitorizazio eta testatze teknikak erabiltzen ditu betetze-arriskuarekin erlazionatutako kontrol-ingurunea balioztatzeko, arriskuan oinarritutako ikuspegia erabilita.

Monitorizazioak jardueren jarraipen eta berrikuspen errepikatua dakar berarekin, arrisku-adierazleen (KRIak) edo arauak ez betetzetik eratorritako desbideratze edo jarduketa okerrak garaiz detektatzeko barne-erabakien bitartez.

Testatzea Erakundearen ohiko prozesuetan betetze-arriskuarekin erlazionatutako araudia betetzen dela baliozkotzean datza, horretarako egiaztapen-teknika independenteak erabiltzen direlarik, besteak beste, laginketak, prozesu-berrikuspenak edo beste edozein motako probak.

5.3.1.7 Prestakuntza eta sentsibilizazioa

Agindua zaion misioa betetzeko, Araudia Betetzeko Funtzioak prestakuntza-, komunikazio- eta sentsibilizazio-programak garatzen ditu etengabe langile guztientzat, betetze-kultura sustatzeko eta betetzearekin lotutako betebeharrak erantzukizunak ezagutarazteko. Prestakuntzako ekintza horiek Prestakuntzako Urteko Planean jasoko dira, zeina Giza Baliabideekin lankidetzan estuan arituz prestatua izango baita.

5.3.1.8 Komunikazioa eta Informazioa

Araudia Betetzeko Funtzioak gobernu-esparru egoki bat bultzatu behar du Erakundearen gobernu-organoei betetze-arriskuarekin lotutako edozein kontrol-ahulezia esanguratsu garaiz eta eraginkorki helarazi eta jakinarazteko.

Aldian-aldian emango die horren berri gobernu-organoei.

5.3.2 Betetzearen Urteko Plana

Betetzearen Urteko Planak dagokion aldiko (urte naturala) Araudia Betetzeko Funtzioaren jardueren zerrenda biltzen du, hura egikaritzeko planifikazioarekin batera; hori guztia, arriskuarekiko eraginpean diren jarduerak aldizka berrikusi, balioztatu eta komunikatzen direla bermatzeko.

Horiek definitzeko eta lehenesteko, proportzionaltasunaren eta arriskuan oinarritutako ikuspegiaren printzipioak aplikatzen dira; hala, arriskuen ebaluazioaren emaitzen, aurretik identifikatutako arriskuen eta ikuskapen-jarduketaren aurreikuspenaren arabera, urtean zehar garatuko diren funtsezko jarduerak eraiki eta planifikatzen dira.

Betetzearen Urteko Planaren jarraipen bat egingo da aldizka, zuzendaritzako eta gobernu-organoei jakinarazteko Planaren ondorio nagusiak, hasierako planifikazioarekiko lotu den egikaritze-maila eta sortu ahal izan diren aldaketa garrantzitsuenak.

5.3.3 Gabeziak identifikatzeko prozesua

Gabeziak identifikatzeko prozesua da Araudia Betetzeko Funtzioak duen funtsezko elementua betetze-arriskuen bigarren defentsa-lerroaren agindua betetzeko eta Goi-zuzendaritzari berri emateko.

Betetzearen gabezia da betetze-arriskuarekin lotutako kontrol-ingurunean identifikatutako edozein ahultasun, honako ondorio hauek eragiten dituzten:

- Betetzeko funtzioak kudeatutako arriskuei lotuta indarrean den legeria edo araudia ez da betetzen.
- Erakundeak edo haren langileek gauzatutako negozio-praktika desegokiak edo Kode Etikoaren eta garapen-araudiaren aurkakoak dira.

Hautemandako gabeziak Betetze Programa osatzen duten edozein jarduera-gako aplikatuzetik sor daitezke, eta Betetzearen Urteko Planean islatzen dira normalean, eta baita gainbegiratzailerak eta barneko eta kanpoko auditoreek egindako jarduketetatik (egiaztapenak/ikuskapenak) ere, zeinak kontrol-ingurune gabeziak identifikatzen baitituzte.